

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aiarako udalerriko administrazio batzarren artean udal aurrekontuko partaidetzaren banaketa arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 21ean balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki du hasierako onespena ematea Aiarako udalerriko administrazio batzarren artean udal aurrekontuko partaidetzaren banaketa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari.

Espedientea jendaurrean egon zen hogeita hamar egun baliodunez, iragarki taulan, eta ALHAOn (67. zk., 2026ko ekainaren 12koa) argitaratu zen. Aldi horretan ez zen hasierako onspenaren kontrako alegazio idazkirik aurkeztu.

Ondorioz, behin betiko onesten da erabaki hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bat etorritik aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin, oso-osorik argitaratzen da arautegi hori.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2026ko abuztuaren 6a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA